

TOKIKOM

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2016ko uztaila • 317. alea



**FUNTZIOA
HASTERA DOA**

giltzak

SEGURIDAD

Segurtasun handiko ate
berriak betiko
profesionaltasunarekin.

¡Zatoz eta informa
zaitez!



www.innmotion.es/puertasdeseguridad

Eibar, Arragueta 3

943 70 13 91

 Kiru Muntalak	Pol. Amillaga 5 BERGARA	■ Diseinu eta Fabrikazio lanak
		■ Arotzeria lanak oro har ■ Instalazioak
943 76 99 85	kirumuntalak@yahoo.es www.kmdesign.es Tel. 943 76 99 85	Sukaldeak Horma-armairuak Logelak Zoruak Ateak...



Kalebarreneko
kale kantoiari
Tel. 943 75 17 89

**Eguneko menua, razioak,
plater konbinatuak,
hanburesak, ogitartekoak,
gosaria, pizzak...**

**Enkarguak
egiten dira**

**TXURITXU
GOZOTEGIA**

Tel: 943 75 24 43

Astelehenerdik ostiralera:
09:00-13:00 eta 16:30-20:30
Larunbatak: 08:30-13:30 eta 17:30-20:30
Igandak: 08:30-14:30

Jai zoriontsuak izan!



AURREZTU ENERGIA



Berotu ura
eguzki izpiekin
edo airearekin

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

JAI ZORIONTSUAK IZAN!

Mendiola
Industrialdea 13



BELAITZ

Tel: 943 75 18 81
www.belaitz.com

NEKAZAL ETA INDUSTRI HORNIGAIK

**baso garbiketak
eta entresakak**
zortzi laguneko taldea
zure zerbitzura



SUMA
basolanak

mug. 635 71 34 08



Zutik ozta-ozta nator

lazko urrian *Isiltasuna hausten* liburua aurkeztu zuen Soraluze 1936 Taldeak. Aurkezpen ekitaldi hunkigarria antolatu zuten. Liburu horretako orrialde bat gure aitaita Benantzio Iñurrietaren ingurukoa zen. Aurtengo irailaren 22an bere ibilbidea emango dugu jakitera, bigarren ale batean. Izenburua *Zutik ozta-ozta nator* izango du.

Amamak bere logelan izan zuen urteetan kartoizko kutxa batean gordeta altxor eder bat. Aitaitak 1936-1940 urte bitartean kartzelatik bidalitako 250 gutun eta agiri zeuden bertan.

Etxean ez zen askotan aipatzen kutxa hartako edukia, baina nerabezaroan izan genuen kartak irakurtzeko lehen aukera. Orain, nagusitan, beste modu batean landu ditugu.

Gure aitaita Benantzio Iñurrieta ez zen izan heroi bat, bere garaiko gizaseme bat izan zen, bere ahulezia eta guzti. Lan honen asmoa izan zen modukoa azaltzea izan da. Beste askok bizia galdu zuten eta hori izan zen lazgarriena, zalantzarik gabe. Gure aitaitaren kasuan, kartzela zigorra jaso zuen, herriko hainbatek jaso zuten moduan. Beraz, ez da aparteko ezer kontatzen, alde horretatik.

Gure kasuan, gutunak gorde izanak balio izan digu aitaitaren bizitza osoa berreraikitzeko, ez bakarrik gerra zibileko kontuak, baita bere ibilbide politikoa, eta kartzelaldiaren ondorengoa: euskalzaletasuna,



Benantzio Oregi

“Amamak bere logelan izan zuen urteetan kartoizko kutxa batean gordeta altxor eder bat”



bertso-zaletasuna, kristau-fedea... nola bizi izan zituzten kontatzen da liburuan. Berez, familia baten istorioetatik abiatu eta belaunaldi baten historia kontatzera iristen gara. Guztira, lauhun izenetik gora azalduko dira 250 orritik gora dituen liburuan.

Euskal Herriko Unibertsitateko Historia Garaikideko Sailarekin harremanetan egon gara ibilbide honetan, eta izan dugu memoria historikoaz eta gerra zibilaz idatzi duten idazle batzuen aholkua eta laguntza ere, Xabier Irujo, Luis Garde, Asun Garikano edo Atxagarena berearena, esaterako. Baita herriko hainbat lagunena ere.

Familiarteak kolaboratzaile sutsuak aurkitu ditut, eta baita lagunartean ere. Horregatik idazten dut pluralean, nahiz eta lanaren ardura nirea izan den. Zergatik lan hau? Ba, egia esan, ez dut jakin galdera horri erantzuten orain arte, baina orain, lana argitaratzear dagoela, uste dut badakidala. Aitaita hil eta hilabete eta erdira jaio nintzen, eta bere izena jarri zidaten. Akaso horregatik neuk behar nuen izan lan hau egingo zuena. Izan ere, liburua amaitzeko, gutun bat idatzi diot ezagutu ez nuen aitaitari...

Ezkutuan gordetzeko joera egon da gerrako hainbat kontu, baina laurogei urte ez al dira nahikoa dena argitaratu emateko eta gerra bizi izan zutenei behar den moduko omenaldi bat egiteko?

Euskalzaletasunaren alde:



PILOLEAN KULTURAZAIAIA, S.L.



SORALUCE

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa Telefonoa: 943 75 13 04 e-maila: aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Egoitz Unamuno eta Gaizka Azkarate Zuzentzailea: Leire Ginea Publizitate: Gaizka Azkarate Diseinua: Iñigo Uribebarria Maketazioa: Oier Larreategi Inprimategia: Gertu Koop. Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale I.Z.K.a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA



SORALUZEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

“Soraluzen eman ditudan bi urte hauek ez dute zerikusirik aurrekoekin”

Arantza Salterain (Elorrio, 1964)
HHI-EPAko gaztelera eta euskara irakaslea



Arantza bi ikaslerekin.

Magisteritza ikasi zuen, AEKn irakasle lanetan ibilitakoa da, Londresen bizi izan zen lau urtez eta bi negu Brasilen pasatu zituen. 10 ikasturte daramatza HHI-EPAko irakasle moduan eta azkenengo bi ikasturteak Soraluzeko HHI-EPA eman ditu, gaztelera eta euskara irakasle moduan. Herriko ekimen askotan ikusi dugu bere ikasleak aldamenen hartuta, kulturen arteko zubilana eginez. Ekainean eman zuen bere azken eskola eta ikasleek despedida berezia antolatu zioten.

Zelako esperientzia izan da Soraluzekoa?

Oso esperientzia ona, batez ere, Euskal Herriko errealitatea hurbiletik ikusteko aukera izan dudalako. Ni, aurretik, HHI-EPA urte asko emandakoa izan arren, bi urte hauek ez dute zerikusirik izan aurrekoekin.

“Etorkinek oso fama txarra dute baina nik jende zoragarria ezagutu dut”

Zergatik diozu hori?

Nire HHI-EPAko lehenengo esperientzian, ikasle gehienak 60ko hamarkadan Espainiar estatutik lanera etorritako jendea zen, emakumeak denak; eurak zirelako analfabetismoa sufritzen zutenak. Apurka apurka, HHI-EPA-ko zentroetan ingelesa, frantsesa, informatika erakusten hastearekin batera, ugaritu egin dira beste hizkuntza eta kultura batzuetako ikasleak.

Egia esan, beste kultura batzuetako jendea ezagutzea oso esperientzia polita izan da eta asko ikasi dut beraiengandik. Etorkinek oso fama txarra dute baina nik jende zoragarria ezagutu dut. Hurbiletik ikusi dut jende horren sufrimendua, herrimina eta Eduardo Galeanok esaten zuen bezala “Los nadie, valen menos que la bala que los mata”.

“Bizitza osoan ikasten pasatuta ere, ezer gutxi dakigu”

Zer da eurekin ikasi duzuna?

Desberdintasunean aberasten, enpatizatzen eta elkar errespetatzen. Pakistanen, Bangladeshen, Saharan, Marokon, Nigerian, Senegalen... bertan izateko aukera izan dut. Janaria partekatu dugu behin eta berriro, oso eskuzabalak izan dira, azkenean, norbere janaria, usainak eta herrimina partekatzea egoera hori eramateko modua ere bada.

Zelakoa da zure ustez soraluzetarren eta gaur eguneko etorkinen arteko harremana?

Aipatu behar dut Soraluzeko herritarren kemena, hainbeste ekimen antolatzen dituzuelako, eta gonbidapena luzatu diguzuelako behin eta berriro. Nire ikasleek, hizkuntza arazoak zirela eta, ez zuten pentsatu ere egiten inork ezertara gonbidatuko zituenik, autoestimua oso behean zuten. Orduan nire lana izan da Plazentxiatar jatorren as-

moa zein zen azaltzea. Horrek asko laguntzen die.

Elkarbizitzak zertan egiten du huts?

Nire ustez, errespetuan oinarritutako elkarbizitza lortzean dago gakoa, eta ez dut uste inork huts egin duenik. Hobetzeko, ez zait formularik bururatzten.

Aipatuko nuke, ordea, HHI-EPAtik bertatik, baina goitik -ez nabil zentroari buruz lehenengo eta behin hizkuntzak (euskara eta gaztelania) menderatzeko tresnak denon eskura jarri beharko lituzketela eta ondoren, lanean hasi. Gaur egun, hizkuntza ikasten ematen diren orduak ez dira nahikoa, eta hori aurrerago oztopo bihurtzen da.

“Ingelesa debalde, frantsesa, informatika... niri HHI-EPA sekulako txoltoa iruditzen zait”

Zela ikusten duzu HHI-EPA gaur egun?

Ba, egia esan, desaprobetxatuta leku askotan. Elorrixon, esaterako, ez daukagu HHI-EPArik. Zera esan nahi dut, Ingles pixkat ikasteko, adibidez, HHI-EPA debalde da, berdin frantsesa, informatika hastapenak, Euskal Herriko artea... ikasteko. Niri sekulako txoltoa iruditzen zait.

Datorren urtean nora joango zara?

Ahal badut HHI-EPAko beste zentro batera. Momentuz pentsatu ere ez dut egin nahi. Hartzen dudana lanpostuan disfrutatzen eta ikasten saiatuko naiz.

IZAGUIRRE
Igeltseritza

Eraikin berriak • Kalitatezko eraikuntza
Erreformatik • Era guztietako igeltseritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 289

ALKARRI
elkartea

www.alkari.org
alkari@alkari.org 622 725 557

- Boluntarioen prestakuntza eta antolamendua
- Esku-hartze gerontologiko eta sozialen programen garatzea
- Esku-hartze psikosoziala egoitza eta eguneko zentroetan
- Osasun eta kultura animazio zerbitzu pertsonalizatuak

Motzean

Benantzio Iñurrietaren inguruko liburua

Benan Oregi Iñurrietak irailaren 22an aurkeztuko du herrian bere aitaita Benantzio Iñurrietaren inguruan idatzi duen liburua. Benantziok 1936-1940 bitartean gartzelatik etxera bidali zituen 257 gutunek osatu dute liburua oinarria. Liburuan bere ibilbide politiko, erlijioso, kultural eta familiarra aztertu dute. Hitzazurrean aipatzen denez, bertsozale amorratua izan eta espetxean lau urte igarota etxera bertso-kantari sartu egin zen Benantziok; bertso haien hasierako hitzek ("Zutik ostostan nator"), hain zuzen ere, eman diote izenburua lanari. Liburuak 288 orrialde ditu eta euskara batuan dago idatzia; gutunak, berriz, jatorrizko bertsoan dauzka, gazteleraz.



Gotzon Elizburu Sorturen zuzendaritzako kide

Gotzon Elizburu Beristain soraluzetarra Sortu alderdiak bere "birfundazio" prozesua gidatzeko hautatu duen zuzendaritzako hamalau kideen artean dago. Gotzon Kazetaritzan lizentziatua da eta EITB-EHU Multimedia Komunikazioan masterra du. *Ernai* gazte erakundeko koordinatzaile eta bozeramailea izana da eta gaur egun Sorturen *Iratzar fundazioko* komunikazio-arduraduna da.



Ondasun Higiezinaren Zerga garestiago

Uztailako udal-batzarrean ondasun higiezinaren gaineko zerga (IBIa) izan zuten hizpide. Bertan, komertzio eta etxebizitzaren gaineko zerga-tipoa bere horretan geratzea onartu zuten (%0,28); eraikin industrialei dagokiena, berriz, %0,60 igotzea erabaki zuten (gehieneko kopurura). Udal-gobernuaren proposamenak EAJ eta PSE-EEren aldeko bozkek jaso zituen eta EH Bilduren abstentzioa.

Praktikan, zergaren eguneratzeak zergadun diren herritarren %50ari jaitsiera, berdin mantentzea edo 5 eurora arteko igoera suposatuko die. Gainerako %50orren barruan egongo diren 24 herritarri, aldiz, 80 eurotik 350 eurora bitarteko igoera ekarriko die eta gainerakoei 5 €-tik 80€-ra artekoa.

Aldundiak hamabost urteren ostean eraikinen balio katastrala eguneratzeko ikuskaritza egin du eta horrek igoera



Herriko etxebizitzak.

ekarri du Soraluzen: %35ekoa hiriguneko etxebizitza eta komertzioetan eta %10ekoa industriaguneetan. Udal-gobernuak balio katastralean gertatutako aldaketak orekatu nahi izan ditu hiriguneko zerga-tipoa mantenduta. EH Bilduk ontzat jo du udal-gobernuaren asmoa baina zera zehaztu du, azkenean, iazko zerga-bilketan baino 21.000 euro gehiago jasoko dituela Udalak.

FotoNotizia



Eguraldi ona eta jai-giro ederra San Andresen

Aurten ere jende asko ibili da San Andresko jaietan. Zapatu gauean 100 lagun inguru izan ziren afaltzen eta erromerian dantza-giro beroa izan zen. Domekan jende asko hurreratu zen eguerdian eta arratsaldeko zezentxoetara ere bai. Astelehenean, berriz, 50 bat auzotar batu ziren bazkaltzera. Jaietako zozketaren zenbaki saritua honako hau da: 1550 (ordezkoa: 2226), bigarren saria Goenetxetxoko Mertxeri egokitu zaio (0517).



*Jatearen plazera,
bertatik bertara*



eguneko menua
astebaruetan
karta eta raziok

ogiatzekoak eta
hamburgerak
enikargu bereziak

familia eta
lagun arteko
bazkariak

Erreserbak:
943 75 20 16

Kontulan

aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta aitortpenak • Administrazio lanak • Trafikoko burokrasia
Lan-arloko aholkularitza • Enpresen konstituzio/disoluzioak • Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. ezk. 20590 Sorluze • Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

Udalekuak Kukumixorekin

189 gaztetxok parte hartu dute uztaileko udaleku irekietan, 19 hezitzaile eta hainbat laguntzailerekin. Hala, hamar egun eman dituzte mendiak, piszinak, kaleak, parkeak eta potzuak jolasean eta kantuan gozatu.



Berbalagun eta Auzoko, urrian berriz

Herritarrak urrian hasiko dira berriz euskara hurbiltzeko Berbalagun eta Auzoko egitasmoetan parte hartzen. 2015-2016 ikasturtean 26 berbalagunkide izan dira eta Auzoko programan berriz 30 herritarrek parte hartu dute. Aniztasunean euskara komunikaziorako hizkuntza izan dadin laguntzea da Pil-pileanek bultzatzen dituen bi egitasmo horien helburua.



Berbalagunak Egotzara egindako bisitan.



Auzokoko hainbat kide mendigainean.

Autobusak hondartzara



Lanegunak asteleheneretik ostiralera

SORRALUZE	ELGOIBAR	MENDIARO	DEBA	MUTRIKU	ONDARROA
07:40	07:45	08:00	08:10	08:20	08:30
09:40	09:45	10:00	10:10	10:20	10:30
11:40	11:45	12:00	12:10	12:20	12:30
13:40	13:45	14:00	14:10	14:20	14:30
16:40	16:45	17:00	17:10	17:20	17:30
18:40	18:45	19:00	19:10	19:20	19:30
20:40	20:45	21:00	21:10	21:20	21:30

ONDARROA	MUTRIKU	DEBA	MENDIARO	ELGOIBAR	SORRALUZE
08:40	08:45	09:00	09:15	09:25	09:40
10:40	10:45	11:00	11:15	11:25	11:40
12:40	12:45	13:00	13:15	13:25	13:40
14:40	14:45	15:00	15:15	15:25	15:40
17:40	17:45	18:00	18:15	18:25	18:40
19:40	19:45	20:00	20:15	20:25	20:40
21:40	21:45	22:00	22:15	22:25	22:40

Asteburuak eta jaiegunak

SORRALUZE	ELGOIBAR	MENDIARO	DEBA	MUTRIKU	ONDARROA
08:40	08:45	09:00	09:10	09:20	09:30
10:40	10:45	11:00	11:10	11:20	11:30
12:40	12:45	13:00	13:10	13:20	13:30
16:40	16:45	17:00	17:10	17:20	17:30
18:40	18:45	19:00	19:10	19:20	19:30
20:40	20:45	21:00	21:10	21:20	21:30

ONDARROA	MUTRIKU	DEBA	MENDIARO	ELGOIBAR	SORRALUZE
09:40	09:45	10:00	10:15	10:25	10:40
11:40	11:45	12:00	12:15	12:25	12:40
13:40	13:45	14:00	14:15	14:25	14:40
17:40	17:45	18:00	18:15	18:25	18:40
19:40	19:45	20:00	20:15	20:25	20:40
21:40	21:45	22:00	22:15	22:25	22:40

Larunbatetan bakarrik

Iturria: www.euskotren.eus

Kiroldegiaren udako ordutegia

Uztailak 24, 25 eta 26: Itxita.

Uztailaren 27tik abuztuaren 14ra: 9:00etatik 13:00etara zabalik.

Abuztuaren 15etik 28ra: Itxita.

Abuztuaren 29tik 31ra: 9:00etatik 13:00etara zabalik.

Udalak, udaltzaingoak eta anbulategiak ohiko ordutegiarekin funtzionatuko dute.

JUAN MARI
ARRAINDEGIA

Arrain freskoa
Etxera eramateko
zerbitzua
Enkarguak hartzen
ditugu

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

Hortz klinika

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 20.000.434

Katia Gustino
Odontologoa
K.Z. 48.001.541

Errabal 1 - Tel.: 943 75 16 13

27 urteko esperientzia

Minik gabeko anestesia,
odontologia orokorra, protesi finkoa
eta mugikorra, odontopediatria,
ortodontzia, implanteak, estetika...

Euskararen etxapligua



Orain bi urteko jaien hasiera.

Jai-batzordeak Pil-pilean Euskara Elkarteari eman dio aurtengo jaietako txupina botatzeko ardura, elkarteak hogeitau urte betetzen dituela-eta. 1996an AEKko irakasle eta ikasleek Pil-pilean aldizkaria sortu eta ondoren euskalzaletalde batek elkarte sortu zuenetik, beti egin du herrian euskal kultura eta jai euskaldunak bultzatzeko ahalegina. Urtean zeharreko jaiekin batera – Aratusteak, Udate gaba, Gaztañerre, Gabonak...-, herriko jaiak euskaldundu eta berritzeko hamaika ahalegin ere egin izan ditu: dirua ateratzeko tabernarekin hasi eta txosnagunean kultur eskaintza euskalduna bideratzen duen gazteen Galtxagorri jai-batzordea bultzatzeraino.

Marraz berrituta, txupete gosez

Jai-batzordearen inguruan sortu ziren Galtxagorri txaranga eta Marraz bera ere, urteekin herriko jaietako sinbolo bihurtu den marrazkilo erraldoia. Aurten gainera, 12 urte betetzearekin batera, konpunduta eta berri-berri bueltatuko da zubira. Umeen txupeteak lagatzeko aukera ere eskainiko du begien inguruan jarriko dizkioten lokarriek esker.

Tonbola herrikoia, gastuak ordaintzeko


Urteurreneko ekimenen eta elkartearen lokala berritzeko gastuei aurre egiteko, Pil-pileanek herriko komertzio, elkarte eta enpresek emandako produktuekin tonbola jarriko du zapatuan, Plaza Barrixan. 500 opari baino gehiago izango ditu: afariak, telebista, ile-mozketak eta abar.

GUNE MUSIC

16:00-04:00

Goiko frontoian

V. urteurrena ospatuko du musika elektronikoa ardatz duen GUNEMUSIC jaialdiak. Aurten ere punta-puntako musika jartzaileak izango dira, besteak beste: Aitor Ronda, Ibailo Juanan eta Diego Gonzalez. Herriko musika jartzaileak ere ez dira faltako eta bertan izango dira Apa, Urok eta David Gonzalez. Frontoikoa amaitutakoan Mendatan jarraituko dute jaiak.




ESTRICALLA 22:30

DJ ELVISCAINO 01:00

Gaztetxean

Hardcore-punk doinuak eta rock 'n roll gaua dira zapatarako aukeretakotako bat. Estricalla taldeak euskaraz eta gaztelaniaz abesten du eta *Corazón de sapo*, *Kuraia* eta *Kloako* taldeetan ibilitako musikariek osatzen dute. Ondoren Izaro Aperribaik, DJ Elviscainok, eguzkia irten arte dantzaleku bilakatuko du Gaztetxea rock 'n roll, punk, dance eta bestelako doinuekin.



Tonbolan zozketatuko diren sarietako batzuk.

UZTAILAK 24

Herri-ikuskitzuna: 60 eta 70eko rock festibala



Jaialdia prestatzeko egindako ensaioetako irudia.

Azkenengo 5 urteotan egin izan duten moduan, aurten ere herriko hogeita-marren bat musikazalek eta dantzazalek musika eta dantza uztartuko dituen ikuskizuna prestatu dute. 60ko eta 70ko hamarkadetako kantu amerikar ezagunak interpretatuko dituzte: *Start me up* (Rolling stones), *Black is black* (Los Bravos), *Move Over* (Janis Joplin), *Twist and Shout* (The Beatles), *Proud Mary* (Tina Turner), *Rock&Roll* (Led Zeppelin)... Aurten, *ZZ Blues Band* taldeko musikariak arduratuko dira aukeratutako 15 kantuek zuzenean jotzeaz.




Veronica Galarraga

Lehenengo aldiz jaietako jaialdia ikusi nuenean, jaietako gauzarik politena iruditu zitzaidan. Gonbidapena egin zidaten eta baiezkoa eman nuen.



Jesus Gil

Nik lehenengo jaialdian ere parte hartu nuen mejikadak kantatzen. Inportantea da herriko jendeak parte hartzea jaietan.



Mikel Hernandez

Herriko jaixak herriko jentiak eginez gero merkegiak eta hobiak izaten dira. Geuk egindako gauzekin hobeto pasatzen dogu.



Lorea de Castro

Urtero parte hartzen dut. Umiltasun guztiarekin egiten dugu baina espektakulu polita da nik uste. Interesgarria da herritarrek elkarrekin lan egitea.

SPUTNIK GOITIBERAK

17:00

Erregetxean

Haur eta gazte abiadura zaleei zuzendutako ekimena da hau. *Sputnik* goitiberak gurpil txikidun egurrezko goitiberak dira eta erregetxeko aldapan beheara jeisteko aukera egongo da.




LA BASU

00:00

Zubiko txosnagunean

Emakumea, euskalduna eta rap kantaria. Egungo euskal raparen erreferente nagusietakoia Etxebarriko San Antonio auzoan hazi zen. Bere azkenengo diskoa euskaraz argitaratu du.



TTUN TTUN BRIGADE

02:00

Gaztetxean

Euzkoelktropop sinfonikoa jorratzen du Asier Kortabariak, Mikel Aginagaldek eta Ekaitz Aranberrik osatzen duten *Ttun Ttun Brigade* taldeak eta *"Euskal Herrian txortan egiten da"* eta *"Sagardotegian bai"* bezalako hitak aurkeztuko dituzte.



UZTAILAK 25 Santiago Eguna

Gazte eguna

Desafioa: Soraluze vs Elgoibar



Orain bi urteko desafioa oñatiarren kontra.

Soraluzeko gazteek desafioa egin diete Elgoibarkoei eta uztailaren 25ean goizeko 11:00etan jarri dute hitzordua zubiko txosnagunean. Azken egunotan sare sozialetan zabaldu duten bideoan dioten moduan, Karakateko mendi-puntaren jabetza da jokatu dutena. Orain bi urte oñatiarrekin egin zuten moduan, oraingoan, elgoibartarrekin egingo dituzten jolasen bitartez jokatu dute desafioa. Desafioaren ostean bazkaria egingo dute elkarrekin. Bestalde, aurtengo Gazte Eguneko ekitaldi nagusia jaietako hirugarren egunean antolatu dute, "gazteak

egunez jaietan atera daitezten eskaintza erakargarria egiteko helburuarekin".

Gaztetxea eta Galtzagorriak elkarrekin
Aurten lehen aldiz, Gaztetxeak eta Galtzagorrien jai-batzordeak elkarrekin antolatu dute jaietako egitaraua. Elkarren indarrak hobeto aprobetxatuz, gazteendako ekimen erakargarriak antolatzea izan da bat egiteko arrazoia. Parte hartzea, kultur aniztasuna, euskaltasuna eta parekidetasuna oinarri hartuta, ekimen ludiko eta musika eskaintza askotarikoa osatu dute.

PERLAK 22:30
DJ C.O.NPOTA 03:00
Gaztetxean

Barnera begirako kantu nostalgiko, atmosferiko, indartsu eta zuzenez beteriko kontzertua eskeiniko du *Perlak* talde zarauztarrak. Gaztea maketa-lehiaketako finalista izan ziren eta kontzertu ugari eskeini dituzte. Ondoren Dj C.O.npota musika jartzaileak luzatuko du festa. Bertan etzungai izango dira euskal klasikoak, gaur eguneko panorama musikaleko doinuak, musika beltza, estilo azkarreko kantuak...



DJ JON
01:00
Plaza zaharrean

Jon Urbieto zumaiar gazteak era guztietako erritmoak jarriko ditu, dantzarekin lagunduta. Arrakasta ziurtatuta dago.



Pantxika izeneko doinua

Aurten Pantxika izeneko doinua estreinatuko dute tanborradan, Eibartik ekarritakoa. Azkenean urteroko kopurura hurreratu dira eta ehunetik gora lagun aterako dira nagusien tanborradan. Umeen danborradan ere urteroko antzeko kopurua izango da baina aurten ez dute antzerkirik egingo. Osteko merendola Plaza Barrixan egingo dute aurten.

UZTAILAK 26 Santa Ana Eguna

Herri kirol jaialdia

Alex Txikon eta Bihurri aizkoran



Alex Txikon kirolaria.

Santa Ana egunean herri-kirol jaialdia egingo da Plaza Barrixan. Badira urte batzuk jaietan herri-kirol jaialdirik egiten ez zela eta aurten puntako herri kirol-jaialdia antolatu du jai-batzordeak. Bihurri arduratu da jaialdia prestatzeaz eta aizkora zein harrijasotzea uztartuko dituen jaialdia prestatu du martitzen eguerdirako.

Hala, aizkolari eta harrijasotzaile ezagunek parte hartuko dute jaialdian. Aizkoran honako hauek jardungo dute: Alex Txikon, Bihurri, Donato Larretxea eta Jon Rekondo. Harrijasotzen, berriz, honakoak: Joseba Ostolaza eta Idoia Etxeberria. Etxeberriak munduko errekorra du, ekainean 163,4 kiloko harria jasota.



Kroketeketa tradizio?

Iazko Santa Ana egunean dultzaineroek gau-pasa egindako gazteak izan zituzten lagun goizeko zazpiretan Kalebarrenen zehar egin zuten kalejiran. Debatar gazte batek lurrian bueltaka zeharkatu zuen Kalebarren osoa dultzaineroen aurrean, bidea oztopatu barik. Baten batek bideoan grabatu zuen eta sekulako zabalpena izan zuen sare sozialetan. Ikusteko dago "kroketeketa" izenarekin bataiatu zuten martxa berriz errepikatuko den.

DEMODE QUARTET

22:30

Plaza zaharrea

Umorez betetako musika ikuskizuna eskeiniko du *Demode Quartet* lauko-teak, haibat abesti ezagun "a capella" interpretatuz. Gurean *EPA* izeneko ikuskizuna aurkeztuko dute. Taldea Joli Pascualenak, Mikel de la Fuentek, Iker Huitzik eta David Rosco interpreteek eta Patxi Barco gidolariak osatzen dute.



AUTOBUS MAGIKOA 23:00

BI BALA 01:00

Gaztetxean

Oiartzundik dator *Autobus Magikoa* euskal reggae/rap musika taldea. Sus-traietatik irtendako musika-erritmoz josiko dute *Gaztetxea*. *Bi Bala* taldeak ere joko du, Aitzol Barandiaran eta Iñaki Gurrutxaga bertsolarien gidaritzapean. Euskal jendartearekiko kritikaz eta hitz-joko bihurritz osatutako abestiak kantatuko dituzte, doazen tokirako propio sortutako edo egokitututako letra, doinu eta bertsioekin batera. Bertso/rock doinu ezagunetz eta umorez zein ironiaz betetako letra probokatzailez beteko dute *Gaztetxea*.



Motzean

Olaizola eta Atxotegi aurrez aurre

Jaien bezperan pilota jaialdia izango da kiroldegian. Lehen partiduan Santamariak eta Zezeagak Alberdi eta Kortabarriaren aurka jokatuko dute. Bigarrenean, Asier Olaizolak -profesional mailan ibilitakoak- eta Andreuk Atxotegi eta Bolinagaren kontra jokatuko dute. Jaialdia gaueko 22:00etan hasiko da.



Juaristi Euskadiko azpi-txapeldun

Ainara Juaristi soraluzetarra euskadiko azpi-txapeldun izan da Eibar taldearekin, Añorgaren kontrako finala penaltietan galdu eta gero. Ainarak 4 urte daramatza talde armaginean jokatzen eta aurten Territorial eta Bigarren mailan jokatu du.



Andoni eta Asier txapeldun

Andoni Calles eta Asier Fernandezek jantzi zuten txapela Asier eta Iñakiren omenezko XV. pelota txapelketan. Finalan 22 eta 14 hartu zituzten mendean Ion Varela eta Markel Albisua. Hirugarren egin zuten lokin Arrillagak eta Argoitzek, Gorka Ojea eta Ander Oñateri 22 eta 10 irabazita.



“Gimnasia erritmikoa gozamina da niretzat” Irene Perez



Irene Perez.

Irene Perez, 19 urte. Administrazioa eta finantzak ikasten dihardu.

Orain dela 8 urte hasi zen gimnasia. Malagan oporretan zela Pekingo joku olinpikoak ikusi zituenean piztu zitzaion grina. Orain Euskadiko txapelduna da.

Lehen txapelketa?

2012an, Gipuzkoako azpi-txapeldun izan nintzen. Hasieran, ez nuen lorik egiten txapelketen aurretik.

Aurten denboraldi bikaina.

Bai, gozatu egin dut. Gipuzkoan bigarren postua lortu nuen eta Euskadiko txapeldun izan naiz.

Zer esaten dizute ingurukoek?

Familia eta lagunak oso pozik daude eta eskertzen dut berotasun hori, dena dela, eskatzen didate beraiekin gehiago egoteko.

Zenbat entrenatzen duzu?

Hasieran astean bi egunez ordubete, orain, astean 5 egunez hiru ordu, gehi txapelketak. Entrenamenduak gogorrek dira, baina merezi dute.

Momentu gozoena?

2015ko euskadiko txapeldun izan nintzenean ama eta biok negarrez besarkatu ginenekoa.

Zer erakutsi dizu kirolak?

Disiplina. Daukazu denbora ondo aprobetxatzea; lagunekin eta familiarekin egoteko, ikasteko, deskantsatzeko... Azken lau urteetan galdu dut Gaztainerre eguna (barre artean).

Eta hemendik aurrera?

Abenduan Poloniara noa eta gimnasia alde batera utziko dut, baina 2017an Espainiko txapelketarako sailkatu eta bertan erretiratzea gustatuko litzaidake.

GIMNASIAK...

Erakutsi dizuna? Taldean lana egiten ikasten.


Maniarik? Txapelketa baten aurretik ez dut gosaltzen.

Ametz bat? Espainiako selekzioara joatea.

Janari gustokoena: Pasta

Afizio bat: Lo egitea

Gimnasia ezean? Ez dut imaginatzen bizitza gimnasia gabe.



EDURTZA
taberna

Ogitartekoak, razioak,
hamburgerak, pintxoak
eta pizzak

Patata tortillak egiten
dira enkarguz

Santa Ana 18
Tel: 943 75 13 83



MENDIZABAL
okindegia

**Ogia - Prentsa
Gosariak**

Astlehenetik ostiraloraz:
08:00 - 13:15 eta 17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak:
08:00 - 13:15

Kalebarren 10 - Tel.: 943 75 13 99

“SORALUZEEKO ANDRAMARIXAK” IÑAKI LETE (1970)

Gerra aurreko Andramarixak

60eko hamarkadara arte Andramarixak izan ziren herriko jai nagusiak. 50eko eta 60eko hamarkadetan Espainiar estatuko lurraldeetatik jende asko etorri zen eta 70eko hamarkadatik aurrera abuztuan oporrak hartzeko ohitura zabaldu ahal, Santiago-Santa Ana jaiak gero eta indar handiagoa hartzen hasi ziren. 1964. urtean, Allegro elkarteak lehen aldiz danborrada antolatu zuenean, orduko udalak Santa Ana herriko jai-egun izendatzea erabaki zuen. Ramiro Larrañagak bere monografia historikoan jasotzen duenez, XV.mendeko udal-ordenantza batek aipatzen du, aintzina, herriko jai nagusiak Santa Ana jaiak zirela.

Iñaki Letek, gaztea zela (1920 eta 30eko hamarkadetan), ezagutu zituen Andramarixak gogoratzen ditu 1970ean Deban idatzitako “Soraluzeko Andramarixak” ondorengo artikuluan argitaragabea, eta zehaztasunez aipatzen ditu garai hartan antolatzen zen egitarauaren osagai nagusiak.

“1964. urtean, udalak Santa Ana herriko jai-egun izendatzea erabaki zuen”

Soraluzeko Andramarixak

Hemen pasatu gendun zoritxarrezko gerra baino lehen, esan nezake ez nintzala atera inoiz gure herritik. Bilbao ta Donostia baino hobeki ezagutzen nitun inguruko mendiak: Unzeta, Elosu, Irukurutzeta, Azkabeitxi, Munetako-aitzak, Aitxantxabolak, Txaria, azken hau, Plazentziko Parke Nazionala.

Gu kaletar ginan, Errege-etxean Zelestino maixu txikiakin lehenengo abc ikasiak, baino gure artean oraindik garusaia somatzen zan, gurasoak ez-ezik, aitona baserritarrak izandu zirelako.

Nik, eta nik bezala nire lagunek, erderaz oso berandu ikasi gendun naiz ereldun



Trainerilak ibaian.

ikastoletan egin gure heziketa. Horrelako ginan gu sasoi hartan. Hamabi-bat urte nituala, Maristetan ikastolan, hamaika t'erdietan gudariak bezala formatuta ikastolatik elizara, Nazarenoan kapilara, “estazioa” egitera.

Viva Jesús Sacramentado.
Bebito sea malo.

Egun batean, lehenengo aldiz Periko Txatua ikastolara etorri zanean, Markos, bere anaiak ekarri zuan Hermano Niceas, Nabarro, irakasle, zuzendari.

Markosek – Ave Maria. Buenos días. Aquí traigo Periko.

Uztailan erdi inguruan, ikastolako oporrak. Keixatan, sagar-lapurretan, Arrio-

Elizpe
Hortz klinika

Gare zerbitzuak:
- Ortodontzia (kuztolina)
- Implanteak

DOMINIKO BERRIKUETXEN
FINANZAKETA ZURE NEKAZIA
KONPROMISOAK GARRANTZIOK

MUTURILUA, PADI (hasieran arretarako hortz programari)

Tel: 943 75 25 67
Elizburu, 3 beheko, Soraluze

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

arrunta
dekoraziokoa
industrialak

Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

gain eta Olako osinean nahiko igari-ta... hemen dirala Andramarixak.

Santana kalean, "txurreria", gaztelar ezagun batzuen. Centro Católico deritzaionan alboan, Plazido Oregik jartzen zuan txabola antzeko garagartegia. Plaza Zaharrea, Txurrukesianeko etxe aurrean, Eustakio Galok, Sesmak, ipintzen zituan mahi eta jarlekuak. Errege-etxean, kotxe-bideruntz, "tiro pitxoia", gure atrazio haundiena.

Andramari bezpera

Andramari bezperan, kanpai-buelakoak, hiruretan, Madrilen ere entzungo zirenak. Jiganteak arratsaldean. Erorriko ta Txitia, Amable eta Aizea, Motxa ta konpañia, Plazentziako jendia!

Iluntzean, Eslavan Salbea. Aiuntamentua, konsejopetik ateratzen zan, banan-banan, Elizaruntz, errespetu guziakin. Herriak aukeratutako gizonak bai ziran.

"Izarditan ibili arren, trajea egun guzian, bragetarainoko korbateakin"

Andramari eguna

Andramari egunean, txistularien pasakalea. Eusebio ta Periko Motxa, Inazio Tanbor-ekin, kalez-kale. Ai gure txistulari zaharrak, esker txarrez ordainduak! Ixil beharra dut.

Meza nagusia. Pontifikala. On Jose Maria aldarán, Aita Santuak baino zeremoni geiagokin. San Inazio musika bandak, karlistena, konziertua bazkal aurrean eta gero, etxeetan, konbidautzea. Arratsaldean, Aiuntamentu ta Banda kainoi fabrika berrietara, Eibar-ko musika Banda eta Alkate edo ordezkarien bila. Denok elkarrekin Plaza Berrira eta beste konziertu bat. Gero dantzaldiak gu baino haundiago ziranentzat. Gauean, Plaza Zaharrea, etxaplo ta bonbak, su-artifizialak, eta gurasoekin limonada edo garagardo pixkaren bat, - bai minkotza- Galon maihetan.

San Roke eguna

San Roke egunean, hemen datorrela izen hontako San Roke-txikixa, prozesioz bere ermitatik, Ezoz gainean, Eliznagusira. Beste Pontifikal bat, konziertua eta konbidautzea gaur amaituko dena. Arratsaldean, Bergarako musika banda, Tannauser, Loengrin edo horrelako musika bereziakin. Mantekau edo limonada, polborak ahoak legortzen ditualako.

Aztu baino lehen esan behar dut, egun hauetan eta Aste Santu jaietan gertatzen zituztela plazentziatarren beren "traje"

IÑAKI LETE (SORALUZE, 1913- DEBA, 1984)

Iñaki Lete Soraluzean jaio zen 1913an eta bertan bizi izan zen 1936ra arte. Gerrako errepresioak erbestera alde egitera behartu zituen bera eta bere familia, abertzaleak zirelako. Joxe Mari Lete, 1938an Trubian fusilatu zuten gudari soraluzetarraren anaia zen eta Juan Jose Lete antzerki idazlearen semea. Erbestetik bueltatu zirenean, Deban jarri ziren bizitzen Iñaki eta bere familia, eta bertan bizi izan zen 19xxan hil zen arte.

Euskalzalea izaki, Deban ere gogotsu jardun zuen euskara eta euskal kultura sustatzeko lanean. Jaiotzez Plazentziakoa izanda, bere burua beti plazentziatartzat izan zuen eta hainbat



artikulu eta poema idatzi zituen bere jaioterriaz. Argitaratu dugun hau da horietako bat.

berriak. Izarditan ibili arren, trajea egun guzian, bragetarainoko korbateakin. Ez ziran makurrak.

"Karlisten Bandakoak eta Batzokiko txistulariak alkarturik ez zan izaten diferentzirik egun horretan"

San Roke Txiki eguna

Ta hemen datorrela San Roke-txiki eguna, munduan-mundu zanik egunik haundiena. Goizean, goiztik: "Zezena dator arkupetik, sua dariola adarretik, jea,jea, Santana kaletik! Bel-beltzak dira, adar zorrotza, bustana motza. Arrapatzen bazaitu, jo ta bertan ilko zaitu."

Zestero zaharra, Leokadio Txatua "Legaristi", Roman Arluziaga "Trapu" ta beste dozenerdi gizon gazte soka aurrean. Herriko kale guzietan zezena - "Jea, jea! Kontuz sokiakin!" - Goizeko saioa labur xamarra izaten zan, jendea aurre-eguneko legortan zelako. Gero Plaza Berrian aurrezkoa, baita ere herri guzia pasatzen zuana.

Bazkariak etxetik kanpora, lapiko asko erreko zirelako zezenengatik, edo horrela zelako ohitura. Karlistetako Bandakoak eta Batzokiko txistulariak denak alkarturik ez zan izaten diferentzirik egun horretan. Hemen berriz zezena, arratsaldean. Zubiak burnizko baranda du, eta asko dira baranda pasata zingilitz gelditzen direnak ur-gainean. Leokadiok eta Romanek badakite zer egin sokakin. Zezen-muturra beren aurrean jartzen diote. Plasta, uretara!

Edo han dijoala bat, estu, larri, zezen aurrean. - "I, Roman, emoixok amain sokiari, eibartarra dok hori, ta!". Egun batean, kainoi fabrika, lan egin beharra izan zuten San Roke-txiki arratsaldean. - "Plazentzian biarra gaurko egunez? Soratuta dauaz horrek ala? Ointxe ikusiko juek zer dan gauz-ona!". Zezena sartu zuten lan-tegira. Han dijoala makinari makina Las-turko adar-motza tornu eta fresadora artean. Ze uste juek ba horrek iñuxentio!". Ikusi ditut apaizak manteoakin zezenari "pasea"ematen, emakumeak bere aurrean ibiltzen eta gu ginan bezalako mutil koskorak adarrean ikutzen. Gero, Padarra - Jose Maria Iparraguirre - esaten zuala: "Me ha destrozado el corazón". Edo Perikillua: "hori nik arreglatuko juat datorren urtian".

"Zezenen ondoren, kukainak, estropadak Tejerotarren eta Herrerotarren artean, paitxa-arrapatzeak"

Zezenen ondoren, kukainak, estropadak Tejerotarrak eta Herrerotarren artean, paitxa-arrapatzeak. Gizonak uretan txalupetatik salto eginda. Ura irakiten poza-ren-pozez, herri batek egiten zion ohoreagatik bere gain jolasten. Aizken erro-meria, gauean. Garagarra pitxarretan burutik behera. Kalez-kale, Banda, zutik egoteko almena zuten musikeroekin. Goazen ohera, Soraluzeako Andramarixak amaitu bai dira ta.

(Erredakzioan moldatuta)


Zorion agurrak



Auritz Oregi Laskurain
Uztailaren 22an 10 urte
Zorionak eta ondo pasau
familia guztian partetik!



Eñaut Ibarzabal Camacho
Abuztuaren 7an, 6 urte.
Zorionak eta muxu potolo
bat etxekuen partez!



Juan Fernandez
Uztailaren 12an, 26 urte
zorionak eta muxu handi
bat etxekuen partez.



Aitor eta Maddi Fernandez
Uztailaren 13 eta 16an, 46 eta 7 urte
Patxo handi bana bixontzako.



Eneko eta Arlene
Uztailaren 20an, 32 urte eta 25ean, urtebete!
Zorionak! Etxekoan partez.



Itziar Agirre
Abuztuaren 15ean, 43 urte.
Zorionak!
Etxekuen partez




Irati Calles eta Maren Agirre
Uztailaren 23an eta
abuztuaren 14an, 5 urte.
Zorionak etxeko sorgin txiki
politxo!



Iñigo Uribeberria
Uztailaren 10ean 41 urte
Zorionak! Beti bezain
alai eta umoreko! Urte
askotarako. Etxekuak.



Jon Caballero
Uztailaren 15ean, 12 urte.
Zorionak gure etxeko
mutil koskorriari. Sendi
guztiaren partez, batez
ere, Nagoren partez.




Mikele Oregi
Abuztuaren 1ean urtebete.
Gure etxeko txikixa ze
handi egiten ari dan.
Muxu erraldoi bat etxeko
piraten partez.



Ibai eta Hodei Tajuelo
Uztailaren 23an eta
abuztuaren 1ean 17 eta
13 urte. Zorionak eta
besarkada bat etxekuen
partez!

Jaiotakoak eta hildakoak



Alvaro Cortes Moran
Nora Garcia Polo

Jaioberriak



Alvaro Cortés Moran
Ekainaren 23an jaio zen.

Kintoak



1981ean jaiotakoak



1954an jaiotakoak

Ikasbidaia



Juana Aseginolaza Badiola



**TXURRUKA
JATETXEA**

- Sukalde tradizionala
- Eguneko menua
- Asteburuetako menu berezia
- Karta

www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81

Mendata

Enkarguak egiten dira
Eramateko prestatzen da
Menu bereziak enkarguz

Berezitasunak:
Ebeen egindako
pizzapatak eta
patata frijuak

Tel.: 943 25 74 52 / 680 75 40 60

BBVA

Jai zoriontsuak izan!



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carniceria
autorizada

Denda

-TIENDA ESPECIALIZADA-

Favier Alberdi

ERRABAL KALEA, 24
TEL. 943 75 19 32



Etxabe Harategia

- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Sorakuzeko baserrietako produktuak
- Etxeko tripaki eta txistorrak

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 23 75

KLB6

Kalebarren 6
943 57 74 26

Mutlen eta nesken
moda gaztea



KLB6
www.kalb6.com



Papa Jeans
BLEND

TREZ
MUNICH

MAISON SCOTCH
LA FEMME BELGE PARIS
VERO MODA

new balance



iraxo



prentsa
goxotegia

25 urte
bete berri!

Zorionak
eta eskerrik
asko!!!

25
URTE
ZUEKIN
eskerrik
asko
danon!!!
♥

Pil-pilean Euskara Elkarte

20^{urte} euskararen saltsan

URTEURRENEKO EGITARAU



Uztailaren 23an

TONBOLA

500 sari baino gehiago Plaza Barrixan

*Erosi zure boletoa
eta zorte on!*



Irailaren 24an

**ELKARTEAREN
BARNE-TOPAKETA**

Biodantza saioa, bazkaria,
jolasak, kontzertua...



Izena emateko: bulegora etorrira, 943751304 edo auzoko@pilpilean.com



**Abenduaren 3an,
Euskararen egunean**

**XX. Urteurreneko
OSPAKIZUN NAGUSIA**

Erakusketa, jolasak,
argazki erraldoia, kantu-bazkaria,
"Euskarak 365 egun" ekitaldia plazan...



Oraingoan ere, gonbidatuta zaude!